

JOAN FONTCUBERTA

MONSTRORUM HISTORIA



EU

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

JOAN FONTCUBERTA
MONSTRORUM
HISTORIA

2025.03.21-2025.06.29

Antolakuntza eta
koordinazio orokorra
Kutxa Fundazioa

Komisariotza eta testuak
Sonia Berger

Museografia
**Sonia Berger +
Nerea Garcia Pascual**

Diseinu grafikoa
TGA + Nerea Garcia Pascual

Muntaia eta argiztapena
Expolan

Argazki-inprimaketa
**Tinta Invisible
EGM**

Markoztatzea
Angle Acutangle

Garraioa eta enbalatzea
Hasenkamp

Aroztegia
Carpintería Aguado

Margolaritza
Margotek

Asegurua
Mapfre

Itzulpenak
**Peter Sotirakis
Rosetta TZ**

Errotulazioa
Druck Faktoria Grafika

Ikus-entzunezko zerbitzuak
Laser Audiovisuales

Bideo dokumentala
Gosho

Hezkuntza
Koma Zerbitzu Kulturalak

Inprimaketa
Artes Gráficas Lorea

Kutxa Fundazioak bere esker ona
adierazi nahi die erakusketa honetan
modu batean nahiz bestean parte
hartu eta lagundu duten pertsona
eta entitateei.

Azaleko argazkia:
Joan Fontcuberta,
Monstrorum historia seriekoa (2024)

Bost hamarkadako ibilbidea osatu du praktika eta teoria bisualaren arloan Joan Fontcuberta artista, saiakeragile, irakasle eta erakusketen komisarioak, eta, ibilbide horretan zehar, bere lanaren parte batek ardatz izan du pentsamendu teknozientifikoak irudien ekoizpenean eta harreran duen eraginaren azterketa, naturaren, teknologiaren, argazkiaren eta egiaren arteko gatazkak azalera ateratzeko. Fontcubertak bere saiakeretan aditzera eman duenez, XIX. mendeko positibismoak zientzia finkatu zuen giza jakintzaren molde gailen gisa —bere balio-sistema neutralarekin, egiaren eskakizunarekin eta metodologiarekin—, «poetikoa dena» eta jakintza ez-enpirikoaren beste molde batzuk baino gorago, erlazio hierarkiko batean. Hala ere, filosofia erlatibistaren arabera, sozialki eraikitako diskurtsoa da diskurtso zientifikoa, eta egia modura agertuz zilegitzen du bere boterea.


Tradizioz, argazkilaritza hartu izan denez «errealitatea» modu nahasezinean erregistratzeko gai zen tresnatzat, hasieratik egon da objektibitatearen ideiarri loturik, eta orotariko diskurtsoei egiazkotasuna eta benetakotasuna atxikitzeko baliatu izan da. *Hacker* baten modura, sormen-mugak ikertu ditu Joan Fontcubertak, bai argazkiarenak bai informazioa eta esperientzia transferitzeko gailu tradizionalenak —dokumentua, artxiboa, museoa—, eta haien autoritatea irauli du, ikusleengan jarrera kritikoa aktibatzen xedez.

Gaur egungo testuinguruan, informazioaren teknologien aurrerapenarekin, are beharrezkoagoa da artistak proposatzen duen jarrera kritikoa hori: datuen eta irudien zirkulazioaren abiadurak eta gehiegizko kopuruak diskriminazioa eta gogoe-ta eragozten dituzte, mesfidantza eta errezeloa sortzen dituzte, eta deshumanizazioan pentsatzera bultzatzen dute; eta, horrela, konspirazioaren teoria asaldatuenei ere bide ematen diete. Zalantzan jartzen dira jakintzaren oinarriak, gure kontra itzultzen dira zientzia eta teknologia —makinak—, literatura fantastikoak eta zientzia-fikzioak luze eta zabal azaldu izan duten bezala.

Monstrorum historia erakusketan bildu dira Joan Fontcubertaren lau proiektu artistiko, zeinek sakontzen baitute kultura teknozientifikoak kolokan jartzeko bidean, aldi berean proposatuz jolas bat, desbideratze bat: irudimenera jotzea. Proiektu horietan, artistak biologiaz, munstrotasunaz eta egiazkotasunaz dihardu, besteak beste, eta argazkiaren fikziozko estatutuan sakontzen du, baita aztertu ere haren ekoizpenean, erabileran eta harreran izan diren hurrenez hurreneko aldaketak, harik eta

iritsi den arte gaur egungo egoerara, non adimen artifizialaren meteoritoak eguneratu baitu irudiarekiko zalantza kritikoa.

Monstrorum historia proiektua osatzen dute, alde batetik, *Herbarium* (1982) eta *Fauna* (1989), Joan Fontcubertaren lanaren lehen corpusetako bi, aro predigitalakoak; eta, bestetik, *HeghDI' vem ghaH tu'lu' Dinosaur* (2023) eta *What Darwin Missed* [Darwinek galdu zuena] (2024), egilearen lan berrietako bi, zeinetan baliatu baitu adimen artifizialeko bistaratze sortzaileko sistemak. Artistak bere xedeari eusten dio urteen joanean, baina modu ikusgarrian garatu dira hizkuntza eta prozedura teknikoak.



Ulisse Aldrovandiren
Monstrorum historia
liburuaren grabatua (1642)

Monstrorum historia erakusketak Ulisse Aldrovandi (1522-1605) italiar naturalistaren tratatu ezagun batetik hartu du izenburua. Hura izan zen Boloniako Unibertsitateko Historia Naturalaren lehenengo irakaslea. Aldrovandik animalien eta landareen bilduma ikaragarria osatu zuen bizitzan zehar, eta Boloniako Senatuari utzi zion oinordetzan; horrez gainera, idatzi ugari argitaratu zituen. *Monstrorum historia*¹ tratatua izan zen Aldrovandiren lan ezagunena (1642an argitaratu zen, hil eta hainbat urtera). Giza arrazaren eta animalien erreinua-
ren alderdirik berezienak dokumentatzen ditu bertan, mitoe-
tako eta elezaharretako munstro handiak barne, gaixotasu-
nen, bitxikerien eta izakien xilografia zoragarriekin ilustratuak.
Lan horretan, hortaz, guztiz lausoturik gelditzen dira artearen,
zientziaren, mitoaren eta errealitatearen arteko mugak.

1980. urteaz geroztik Aldrovandi interes bereziko pertsonaia izan da Joan Fontcubertarentzat, hain zuzen, hainbat italiar bilduma bisitatu eta haren ondarea ezagutu zuenez geroztik. Bilduma haiei eskaini zien *Paralipomena* (Silvana Editoriale, 2016), eta han bildu zituen italiar *Wunderkammer* hauen irudiak, bereziki Reggio Emiliako Spallanzani bildumakoak, izaki hibrido eta anbiguoekin, eta Palazzo Poggikoak, hau da, Boloniako Unibertsitateko errektoretzaren egoitzakoa (bertan dago Aldrovandiren legatua). *παραλειπόμενον* (*paralipomenon*) greziar hitzak erreferentzia egiten dio «isilean gordeari», «esan gabe gelditutako gauzei», eta bereziki testu baten informazio osagarriari, oharrei edo informazio alternatiboari.

Bilduma horietara egindako bisitetan sortu zitzaion Fontcubertari bai gorputz izugarri eta anomaloenganako interesa —paradigma zientifikoak edo normaltasunaren eta harmoniaren ideiak zalantzan jartzeko gai—, bai collagearekiko edo *cadavre exquis* surrealistarekiko arreta —forma artistiko korrelatibo gisa—. Hala, *Animal trouvé* [Animalia galduta] lanean —Fontcubertaren lehen proiektuetako bat—, animalien *objet trouvé* ideia surrealista eramaten zuen animalien esparrura, haiek testuingurutik atereaz; lan horrek aukera eman zion argazkilaritzari buruzko bere ideia errealitate «aurkituaren» erregistro gisa kondentsatzera.

Orduz geroztik, munstrotasunaren ideia izan da Joan Fontcubertaren lanaren ardatza, mutazio bete-betean edo krisian dagoen munduan gertatzen ari diren aldaketei arras-
toa jarraitzeko bektorea. Antonio Gramscik *Quaderni dal*

¹ Aldrovandi, Ulisse. *Monstrorum historia. Cum Paralipomenis historiae omnium animalium*, 1642. Boloniako Unibertsitateko liburutegiak digitalizatutako edizio bat kontsulta daiteke esteka honen bitartez: <https://historica.unibo.it/handle/20.500.14008/78076>

carceren [Kartzeren koadernoak] 1930ean idatzi bezala: «Mundu zaharra hiltzen ari da. Berria berandutzen ari da. Eta argi-ilun horretan munstroak sortzen dira». Argazki-gintza egiaren eta memoriaren promesa izatetik adimen artifizialaren bidez sortutako irudietara; dokumentutik espekulaziora; artista eta saiakeragileak azaleratzen ari diren munstrotasunak —hizkuntzarenak, teknologiarenak, politikarenak— erakusten ditu bere lanaren bitartez.



Joan Fontcuberta,
Dendrita victoriosa (1982),
Herbarium seriekoa


Fontcubertak berak *Ciencia y fricción. Fotografía, naturaleza, artificio* [Zientzia eta frikzioa. Argazkilaritza, natura, artifizioa] (Mestizo, 1998) lanean deskribatzen duenaren arabera, argazkilaritza errealtatearen erregistro fidagarritzat hartu izan da historikoki, eta beste tresnek ez bezala betetzen zituen zientziak eta postulatu positibistek oinarri zituzten objektibotasunaren, egiazkotasunaren edo benekotasunaren balioak; giza gaitasunak gainditzeko tresna bat —begiak ezin ikusi duena ere erakutsiz—, zeina urrundu baita, tradizioz, subjektibotasun-zalantza orotatik, partzialtasun zantzu orotatik.

Argazkilaritzaren ikusmolde mekanizista eta akritiko horren aurrez aurre, Joan Fontcubertak «kontraikuspegiaren» ideia kaleratu zuen, 1977an² argitaratutako artikuluan, eta ideia hark egituratu du, urteen joanean, haren jardun sortzaila. Hala, Fontcubertaren kontraikuspegiak saiatzeko dira argazkilaritzan, sorreratik beretik, inplizitu egon den errealtatearen transkripzio literalaren logika hausten, eta arreta jartzen dute inplikatzeko dituen alderdi estetikoetan, etikoean, sozialetan, historikoetan eta teknologikoetan; hau da, arreta jartzen du begien bistatik ezin galdu dugun eta mundua berezian ikusarazten diguten aurreiritziez jabetzerara bultzatzeko gaituen dimentsio kulturalen.

Interesgarria da egiaztatzea artikuluan hori argitaratu zen garaian Topografia Berria joerari atxikitako argazkilariek neutraltasuna bilatzen zutela soilik formalak ziren irudien bitartez, edonolako asmo estetiko edo ideologikorik gabe. Urte hartan bertan, Fontcubertaren kontraikuspegi kontzeptuaren ildotik, Larry Sultan eta Mike Mandel argazkilariek *Evidence* [Ebidentzia] liburuaren argitaratu zuten. Liburu guztiz harrigarria da, eta hura egiteko hainbat artxibategi ikertu zituzten, besteak beste Los Angelesko Polizia Departamentukoak, Estatu Batuetako Barne Departamentukoak, Stanford Research Institute institutukoak eta gobernu-agentzietako, enpresetako, erakunde medikuetako eta abarretakoak. 59 irudi hautatu zituzten, tresna objektibo gisa balio izan zietenak, eta editatu zituzten, testuingurutik aterata, kalitate handiko argazkilaritza artistikoko liburu bat zaintzen den modu berean; hala, lan poetiko eta surrealista bat lortu zuten, non irudiek galdurik baitzuten ebidentziaren izaera eta gelditu baitziren anbiguotasunaren enigmaren mende.

2 Fontcuberta, Joan. «Construcciones, la subversión fotográfica de la realidad», *The Village Cry* #07, 1977. Arte eta pentsamendu aldizkaria, Rolf Paltzer-ek Basilean argitaratua eta Beat Presser-ek editatua.

Argazki-kameraren bitartekotza «zientifikoa» iraultzen duten Joan Fontcubertaren lehen proiektuen artean dago *Herbarium*. 1928an Karl Blossfeldt argazkilari alemanak, *Neue Sachlichkeit* edo Objektibotasun Berria delakoaren ordezkari, *Urformen der Kunst* [Artearen jatorrizko formak] liburua argitaratu zuen, eta hartan inspiratu zen artista, botanikako tratatu berezi bat osatzeko. Karl Blossfeldtek landare zatiei argazkiak atera eta hondo neutro batean handitu zituen, argi naturalarekin, xehetasunak erakusteko eta naturaren sorruntzak forma artistikoen iturria direla frogatzeko. Argazkilari alemanaren estiloa imitatuz, mende erdi geroago, Bartzelonako ingurabide industrialean aurkitutako hondakinekin eta landareen eta animalien zatiekin Joan Fontcubertak irudizko espezieen bilduma bat sortu zuen; haien bitartez erakutsi zuen argazkilaritzaren baliabidea ezin har zitekeela gauza sinesgarritzat eta irudiari aplikatutako teknika berriek zaharkiturik uzten zutela Blossfeldtek baliatzen zuen benetakotasunaren ideia hura.



Joan Fontcuberta,
*Cercopithecus
icarocornu* (1985),
Fauna seriekoa

Era berean, Joan Fontcubertaren hondakin muntatuen bilduma hau XX. mende hasierako abangoardiako artearen eta hirurogeiko hamarkadako balio kontrakulturalen ildotik interpreta daiteke, baliagarritasuna goreneko balioztat hartzen duen sistemaren kritika gisa, kanpoan utzita akastuna, disfuntzionala, merkantzia bihurtu ezin dena³.

Herbarium egin eta denbora gutxira, umore handiarekin eta irudiaren pedagogia kritikoa egiten jarraitzeko asmoz, Fontcubertak Pere Formiguera artista eta idazlearekin batera lan egin zuen *Fauna* (1985) lanean. Proiektu horrek are gehiago sakontzen zuen erretorika zientifikoaren egitura mehatxupearantz jartzeko ideian. Galdera hauek egin zizkioten beren buruari: Zer da egiatik liburuek eta museoek? *Fauna* proiektuak Peter Ameisenhaufen zoologo alemanaren artxibo desagertuak aurkezten ditu. Zientzialariek gaitzetsi egin zuten hura, ikerketa ez zelako ortodoxoa izan eta egoera misteriotsuan desagertu zelako. Argazkiez gainera, proiektuak zalantzan jartzen du irudien helburu den diskurtso instituzionala, eta liburu baten orrialdeen esparrua gaingitzen du, bestiario fantastiko bat argudiatzen duen instalazioa sortzeko; horretarako, bere egiten du zientzia naturalen museoen eszenaratzea eta datu ugari eskaintzen ditu, testuen, hots-erregistroen, marrazkien, mapen, animalia disekatuen, gutunen eta abarren bitartez.

Denboraren joanean *Herbarium* eta *Fauna* lanak ez dira inondik ere zaharkituta edo desfasatuta gelditu; alderantziz, gaurkotar beteko gaiei buruz dihardute. Alde batetik, bioteknologiaren alorrean etortzeko zenari buruzko bi ipuin gisa ikus litezke, irakaspena duten bi ipuin gisa. Eta, beste aldetik, irudiari dago-kionez, irudiaren fikziozko estatutua azpimarratzean, Joan Fontcubertak aurre hartu zien handik urte batzuetara etorriko ziren irudiak hartzeko eta editatzeko tresna digitalei. Tresna horiek zabaldu egin zuten sormenaren eremua eta behin betiko alboratu zuten dokumentu fotografikoaren ziurtasuna.

3 *Herbarium* 1982ko lana da. Badakigu kapitalismoak nola irensten dituen, aurrerago, baita sormenaren asmo iraultzaileak, sareko loturak, mundu globalaren utopia, etab. ere. Ikus dezagun aurrerago zer eragin duen gertaera horrek argazkigintzan eta Fontcubertaren lanean.

ARO POST-FOTOGRAFIKOA

Argazkiei egotzen zitzaizen errealitate-printzipioari eta argazkien erabilera interesatuari buruzko eztabaida gainditzen joan zen aro postfotografikoan kokatu ahala⁴. Artistak deskribatukoaren arabera, «milurtekoaren aldaketarekin batera bigarren iraultza digitala gertatu da. Iraultza berri horren ezaugarri nagusia Interneten, gizarte sareen eta telefono mugikorren nagusitasuna izan da. Bizitzaren alor guztiak astindu dituzte, hasi harreman pertsonaletatik eta ekonomiaraino, hasi komunikaziotik eta politikaraino: bat-batekotasunak, globalizazioak eta desmaterializazioak zuzendutako gune bihurtu da mundua»⁵.

«Bigarren iraultza digitala» deitua (irudien gehiegizko ekoizpenak eta kontsumoak markatua⁶) ongari izan da *fake news* delakoak eta teoria konspiratzaileak agertzeko. Ekosistema digital berri horretan, fikzioaren ideia handitzen joan da, harik eta gure gaurkotasan politiko, ekonomiko, kultural eta abarretatik ezin bereiz daitekeen osagai izatera iritsi den arte.

Herbarium eta *Fauna* lanetan proposatzen zitzaigun jokia, zeinaren asmoa baita fikzioa gure kontzientzian txertatzea, gugeu gai izan gaitezen erreakzionatzeko eta jabetzeko beti eduki behar dela nolabaiteko arduraren irudien aurrean, gaur egun indarrean dagoen gaia da, gizakiak sofistikatu egin bide baitu gezurrak esateko gaitasuna.

Azken urteetan, irudien ekoizpenari dagokionez mugari izan denetako baten agerpenaren ondoren, hau da, adimen artifizial sortzailearen agerpenaren ondoren, artista eta pentsalariak espiritu argitzaile berberarekin jarraitu du proiektuak ikertzen eta sortzen. Irudiak erronka berri bat proposatzen du, dagoeneko ez baitu erreferentea errealitatean, aitzitik, algoritmoen, gizatiarra ez den kamera baten, ondorengoa da.

4 Fontubertaren arabeko teoria postfotografikoaren sintesirako, ikusi: Fontcuberta, Joan, «Por un manifiesto postfotográfico», *La Vanguardia* 2011/05/11. Online: <https://www.lavanguardia.com/cultura/20110511/54152218372/por-un-manifiesto-posfotografico.html>

Horrez gainera, kontsulta daiteke: Fontcuberta, Joan. *La furia de las imágenes. Notas sobre la postfotografía* (Bartzelona: Galaxia Gutenberg, 2016).

5 Fontcuberta, Joan (2016), *op. cit.*, 31.

6 Disfuntzionalarekin, akastunarekin, soberan dagoenarekin lan egiteko *Herbarium* laneko ideiarantz itzuliz, gehiegikeriaren aro postfotografiko berri horretarako, Fontcubertaren dekalogo postfotografikoak «pilaketaren eta birziklatzearen jabetze-estrategiak» aipatzen ditu. 10. puntua honela amaitzen da: «Artearen politikan: ez amore eman glamouraren eta kontsumoaren aurrean kontzientziak eragiteko ekintzan inskribatzeko. Kulturaren genero huts gisa bihurtu den artea gailendu den uanean, salgai artistikoen ekoizpenarekin tematurik eta merkatuaren legeen eta entretenimenduen industriaren arabera arautua, ondo legoke fokuen azpitik eta alfonbra gorrien gainetik atera eta lubakietara itzularaztea».

2023an, egoera gehiago behartzeko asmoz, Joan Fontcubertak bere *Herbariuma* bisitatu zuen berriz, baina gaur egun irudiak sortzeko ditugun tresnez baliatuta. *eHerbarium* esperimentu bat da: Blossfeldten lanarekiko paralelismo estetikoari eta ikonotasunari eusten dio, eta baita Fontcubertaren jatorrizko asmoari ere, alegia prozedura fotografikoaren objektibotasunaz ez fidatzeko asmoari; baina, horrez gain, erakusten digu zenbateraino urrundu den irudiaren «diseinua» gertaera fotografikotik, sinbolizatzen duelarik, aldi berean, zenbateraino bilakatu den naturaren «diseinua».

What Darwin Missed (2024) proiektuan (horixe da proiektu berrienetako bat), Fontcubertak erreleboa hartzen dio Alfred Ehrhardt argazkilari eta dokumentalistari; hari zapuztu egin zitzaion Bigarren Mundu Gerraren eztagandaren ondorioz koral espezie bitxi bat aurkitu eta hari argazkia egiteko proiektua. Ehrhardtek osatu egin behar zuen, Hanburgoko Historia Naturalaren Museoko koralen bildumako kontserbatzailearekin batera, Darwinek mende bat lehenago, «Beagle» ontziaren espedizioaren ondoren egindako katalogazioa (1842an argitaratu zuen Darwinek *Koralezko arrezifeen egitura eta banaketa* lanean).

BISTARATZE SORTZAILEKO SISTEMAK



Joan Fontcuberta,
Montipora aequituberculata
(2024), *What Darwin*
Missed seriekoa

Ehrhardten koralen argazkiekin liluratuta, argazkilari alemanak ezin bukatu izan zuen misioari ekin dio Fontcuberta orain dela gutxi, eta proiektu horren bitartez ezagututako urruneko lekuetako argazkiak zein Europako hainbat hiritako Historia Naturaleko museoetan egindakoak aurkeztu ditu lan horretan. Erakusketan *Cryptocnidaria* espezie aurkitu berriaren irudiak agertzen dira. Espezie horrek ezaugarri ohiz kanpokoak ditu —muturreko ingurumen-baldintzetara egokitua, hala nola tenperatura oso altuak edo baxuak, pH balio ezohikoak edo uraren presio altua itsas hondotan—, eta haren jatorria produktu kimikoekin edo erradioaktibitatearekin lotuta egon liteke.

Ohikoa duen ironiaz eta umoreaz, Joan Fontcubertak *What Darwin Missed* lanean aipatzen du ez soilik Darwinek alde batera utzi zuena, baita espezieen bilakaerari buruzko azterketan jaso ez zuena ere. Baina Darwinek benetan «galdu zuena» izan zen bilakaera-ildoan egokitzapen eta aurrerabide bizkorra —ez nahitaez ederrenak edo ahaltsuenak— forma askoz ere sofistikatuagoetara, esaterako artistak berak irudiak sortzeko programa berrien laguntzarekin irudikatutako *Cryptocnidaria*. Beste behin, proiektu hau transgresio gisa har dezakegu, zeinaren azpian baitaude gaur egungo kezka oso errealak: esaterako, gizakiok biodibertsitatearen alorrean eragindako aldaketa geologikoak eta inpaktua Antropozenoaren arora iritsi arte, edo eboluzionismoaren ideologiaren aurreko oposizioa, dogmatismo erlijiosoaren kontrako mehatxu bat delako.

Monstrorum historia erakusketan aurkezten den laugarren eta azken proiektuan, zientzia-fikzioaren eremuan sartzen gara. *HeghDI' vem ghaH, tu'lu' Dinosaur* lanean (klingon hizkuntzan «Esnatu zenean, oraindik han zegoen dinosauroa», Augusto Monterrosoren mikroipuin ospetsua), abentura kosmiko bat proposatzen digu, fikzio espekulatiboaren bidetik, eta zientzia-fikziozko telesail ospetsuenetako batean kokatzen gaitu, *Star Trek*: klingon arrazak ingeniarietza genetiko bidez dinosauroak aldatu bide zituen, Lurra inbaditu eta hura menderatzeko.

Fontcubertaren dinosauroak *ciborg* teoriara hurbiltzen dira, eta animalien eta makinaren arteko fusioen mundu kimeriko bat proposatzen du, ikuspegi distopiko bat, non, Aldrovandik bere tratatuan deskribatutako munduan gertatu bezala, ez baitago bereizketarik errealtatearen eta mitoaren artean, naturalaren eta artifizialaren artean. Lehenik, interesgarria da azpimarratzea dinosauroei buruz dugun irudia artistek hondakin paleontologietan eta datu zientifikoetan oinarrituta sortutako irudikapen bat baino ez dela. Proiektu honetako dinosauro-makina

atseginak Fontcubertak berrogei urteko ibilbidean aztarnategi paleontologikoetan, historia naturaleko museoetan edo parke tematikoen aurkitutako errepliken argazkiak dira. Horien alboan, *text to image* programen bidez sortutako irudiak aurkezten dira, eta horiekin osatzen du, bisualki, fikzioa.

Faunan egin bezala, klingon hizkuntzan argitaratutako testu batean oinarritzen da ikuspegi sortzailetik. Testu hori Marc Okrand hizkuntzalariak sortu zuen Paramount estudioentzat, eta horren itzulpena QR kode baten bitartez lortzen da. Narrazio horretan, klingon komandante batek «Denboraren gezia operazioa» delakoaren gorabeherak kontatzen ditu, eta, aldi berean, errepasso bat egiten du XX. mendeko pop kulturaren eta zientzia-fikzioaren produktu goretakoetan barrena, gaur egunera iritsi arte, non benetako zenbait gertaera fikzio ero honetan txertatzen baitira, sendotasunez, azken teoria konspiratzaileen berri emanez, esaterako mito reptilianoaren berri emanez.

HeghDI' vem ghaH, tu'lu' Dinosaur proiektuan, Joan Fontcubertak eszenatoki bat sortu du, bizi garen mundu nahasiarentzako eszenatokia, non desinformazioaren gorakadak bat egiten baitu soilik algoritmoekin, kamerarik eta gailu optikorik gabe, egindako lehen irudiekin.

Monstrorum historia erakusketan, ezin hobeto ikusten da, lau proiektu artistiko horien bitartez, Joan Fontcubertak nola egin duen gogoeta azken hamarraldietan naturaren eta argazkilaritzaren artean ezarri diren artikulazioei buruz, zalantzan jarritz, lehenik, kultura teknozientifikoa —hasieratik beretik—, «erreal» denaren osaeraren iturri gisa, eta aztertuz, gero, zientziaren, komunikazioaren eta irudiaren esparruan izan diren aldaketa bizkorak.

Argazkilaritzak galdu egin du, bilakaera berezi horretan, bere ezaugarri materiala eta bere erreferentetik urrundu da, eta, horrekin batera, ahalmen semiotikoa irabazi du, hau da, komunikaziorako tresna ahaltsua bihurtu da, eta ezinbesteko osagaia mundua ulertzeko moduan. Informatikak, telematikak eta bioteknologiak zeharkatutako mundu bat, non informazioa, komunikazioa eta ezagutza tresna estrategiko bihurtu baitira eta, hortaz, indarrean baitirau irudia sortzeko eta hartzeko baldintzei kasu egitearen garrantziak, are gehiago kontuan hartuta gaur egun irudikapena ez dela giza begien emaitza.

Joan Fontcubertaren laurogeiko hamarraldiko posizionamenduaren oinarria zen premiazkoa genuela ikuspegi zorrotzak,

autoritarioak, gainditzea, komunikazio-estrategia interesatuak agerian uztea eta munduaren gure irudikapena aldatzea, beste zentzu edo orientazio bat emateko. Gaur egun, posizionamendu hori, «kontraikuspegiaren» kontzeptua —irudiarekiko zalantza kritikotzat hartuta—, inoiz baino premiazkoagoa agertzen da. Benjamin Labatut eleberrigileak *La piedra de la locura* [Eromenaren harria] lanean adierazi bezala: «Gauzak argi berri batez ikusten ikasi behar dugu, arrazoiaren sugarrak ez duelako jadanik argitzen gure inguruan poliki-poliki osatzen ari den labirinto konplexua (nahiz eta batzuek esango duten eraikia izaten ari dela)».

Joan Fontcubertak maisutasunez erabiltzen du oraindik ere irudia —analogikoa, digitala edo *software* baten bitartez osatua— munduari buruz gogoeta egiteko, esparru sortzailea zabaltzen duten eta gure kultura bisuala handitu eta gaur egungo komunikazio-estrategien aurrean erne jartzen gaituzten fikzio argien bitartez.

Arazoa ez dirudi denik begi algoritmiko horiek «ikus» dezaketena, baizik eta geure burua horien aluzinazioen mende uztea, ez aurrera ez atzera gelditzea, inguratzen gaituenari ohiko narratiben bitartez zentzua emateko aukerarik gabe. Azkenik, ziurta dezakegu AA berez gai izango dela *HeghDI' vem ghaH, tu'lu' Dinosaur* laneko «Denboraren Gezia Operazioa» edo *What Darwin Missed* laneko *Cryptocnidaria* bezalako istorio zoragarriak sortzeko? Irudi berri horiekin irudimenaz eta esperimentazioaz baliatzea estrategia ona da nola funtzionatzen duten ulertzeko eta horien mugak identifikatzeko. Goyak bere *Capricho*etako [Kapritxo] batean adierazi bezala «Arrazoiaren ametsak munstroak sortzen ditu», Joan Fontcubertak gonbita egiten digu «hura leheneratzeko erantzukizuna gure gain har dezagun eta munstroen ametsak arrazoa sor dezan»⁷.

Sonia Berger

⁷ Gerard Moliné. «Los "monstruos" de Joan Fontcuberta», *TheNBP*, 2022eko azaroak 12, Joan Fontcubertaren Museu Can Framis de la Fundació Vila Casas-eko *Monstruos* erakusketari buruz.



Joan Fontcuberta, *Dinópolis, Teruel* (2020), *Dinosaur* seriekoa

Bitartekaritza

Bisita komentatuak

Igandeetan, 17:30ean euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz
Sarrera doan da, baina aldeaz aurretik izena eman behar da webgunean

Familia-tailerria

Egia karratuak, gezur borobilak eta iruzur hirukiak... adi ibili irudien artean!

Amaia Urzainekin

2025ko apirilak 5 eta ekainak 7, larunbata, 11:30-13:30, Kutxa Fundazioa Artegunea

6 urtetik 12 urte bitarteko neska-mutilak, heldu baten laguntzarekin.

Euskaraz. 5 euro haur bakoitzeko, helduak doan.

Izena webgunearen bidez eman behar da

Begirada eta mingaina zorrotzu beharko ditugu egia, gezurra edo iruzurraren bila. Joan Fontcuberta artistaren proposamenek emango digute bidea eztabaidak hitzez pizteko eta irudimena irudiz astintzeko. Landare, animalia, dinosauro edota koralen artean ibiliko gara istorioak kontatzen Historia (des)egin arte... Geruza bat, beste bat, beste bat, beste bat... a ze meta, a ze muntaia, a ze memoria, a ze *monstruorum!*

Familia-tailerria

Beleari so. Munstroak. Maider Aldasoro eta Ane Rodriguez Zaitegirekin

2025ko ekainak 21, larunbata, 17:00-18:30, Kutxa Fundazioa Artegunea

6 urtetik 12 urte bitarteko neska-mutilak, heldu baten laguntzarekin.

Euskaraz. 5 euro haur bakoitzeko, helduak doan.

Izena webgunearen bidez eman behar da

Beleari so bitartekaritza proposamen bat da hainbat tailerretan elkarrizketa eta begirada kritikoak aktibatuzko irudiarekin eta kontakizun bisualarekin lotutako gaien inguruan. Saio honetan geure gorputzekin beste gorputz posible batzuk sortzen saiatuko gara; giza gorputz batzuk, gure munduan bizi diren beste forma batzuei buruz hitz egiten digutenak; beste gorputz batzuk, irudimena eta fantasia harriduratik ateratzen dituztenak. Ezinezkoa posible egiten saiatu nahi dugu. Irudiak eta fantasiak errealitatea zalantzan jartzeko duten ahalmena aztertu nahi dugu.

Programa publikoa

Elkarrizketak

Ikonofagias. De nuestros contemporáneos [Ikonofagiak. Gure garaikideenak],

Joan Fontcuberta argazkilaria eta Iván de la Nuez saiakeragile, kritikari eta komisarioaren arteko elkarrizketak

2025eko maiatzaren 29a, osteguna, 18:30ean, Z aretoa (Tabakalera, 1. solairua)

Gaztelaniaz

Sarrera doan, aurretik izena eman behar da webgunearen bitartez

Informazioa

T. (+34) 943 251 937

E. hezkuntza_artegunea@kutxafundazioa.eus

Erreserbak www.kutxafundazioa.eus

Ordutegia

Asteartetik igandera

12:00 - 14:00

16:00 - 20:00

Sarrera
doan